

0. gidoia: Izarraren aurkikuntza

0. gidoiaren deskribapena: Izarraren aurkikuntza

Narratiba honek Izarraren aurkikuntza kontatzen du; hots, eguzki-eklipse batean protagonisten institutuan artefaktu misteriotsu bat aurkitu zutenekoa. Ainara, Eloi, Naroa, Andoni eta Gorane abentura batean murgilduko dira, eklipsean zehar agertutako argi misteriotsua ikertzeko. Ikertzen ari direla, gela sekretu bat topatuko dute; bertan, Izarra aurkituko dute, zeinak errealitatearen dimentsio ilun bat erakutsiko dien. Aurkikuntza hori egin orduko, hainbat gertakari eta deskubrimendu jazoko dira, eta inpaktua izango dute protagonistengan eta haien eskola-ingurunean.

Helburu pedagogikoa

Gidoiaren helburu pedagogikoa da DBHko ikasleen artean talde-lana, jakin-min zientifikoa eta ikerketa bultzatzea. Narratibaren bidez, lankidetzeta, pentsamendu kritikoa eta arazoak konpontzea bezalako balioak sustatzen dira. Gainera, elementu kultural eta historikoak sartuz –antzinako Mari jainkosaren erreferentzia, adibidez–, ikasleek beren ondare kulturalari buruz duten ezagutza aberastu nahi da. Gidoiak, halaber, bestelako ikuspegi eta errealitateak arakatzeko ideia ere jasotzen du, ikasleei inguratzen gaituen mundua modu zabalago eta enpatikoagoan ulertzen laguntzeko.

Eszena	Deskribapena	Elkarrizketak
E00	Ikastetxearen panoramika bertikala	[IZENBURUA] Izarraren aurkikuntza

E01	Ikastetxearen sarreraren panoramika horizontala, ikasleak sartzen ari direla	
E02	Ikastetxearen barrualdearen panoramika horizontala. Eszena Instagrameko zuzeneko formatu batera aldatzen da	
E03	Zuzenekoa Instagramen. Pertsonaia bat hitz egiten hasten da (Ainara)	AINARA: Kaixo guztioi. Zer moduz zaudete? Hona hemen nire institutua! Hemendik gutxira ordubete libre izango dugula esan digute; beraz, banoa nire kuadrillaren bila!
E04	Kafetegia	AINARA: Hau Gorane da. Denbora gehiago ematen du kafetegian, eskoletan baino!
E05	Kimika-ikasgela. Eloi probeta pare bat eusten ari da, nahasketa bat eginez, gaizki aterako zaiolakoan beldurtuta/kikilduta/txundituta (kamerari begiratzen dio, <i>The Office</i> telesailean bezala)	AINARA: Hau kimika-eskola da. Hori Eloi da, nire lagunik onena. Kimikan ez da oso trebea. Espero dut ez duela nahaste-borrasterik sortuko!

E06	Historia-eskola. Naroa, atzealdeko mahai batean asper-asper eginda –gainerakoak bezala– eta erdi lo.	AINARA: Zer esango dizuet nik historia-eskolei buruz? Liluragarriak dira... Naroari gehiago gustatzen zaizkio gimnastika-eskolak.
E07	Saskibaloï-kantxa	AINARA: Kuadrillako azkena, Andoni. Aulkiak ez zaitzatela engaina; saskibaloï-taldeko kapitaina da. Kirolean ezin hobea da, baina lehiakorregia da.
E08	Horma batean, gaur eklipsea egongo dela iragartzen duen poster bat, ikusteko ordubete libre izango dutela adierazten duena	AINARA: Gaur eguzki-eklipsea egongo denez, ordubete libre eman digute, jolastokitik ikus dezagun. Ni eklipsearen argazkiak egiteaz arduratuko naiz, institutuaren webgunerako. 12etan ikusiko dugu elkar, beste zuzeneko batean! KARTELA: Eguzki-eklipsea. Eguerdiko 12etatik aurrera, eten egingo ditugu eskolak, gaur bertan izango den eguzki-eklipsea jolastokitik ikusteko.
E09	Eguzkiaren plano. Kartulinak hartuta eklipsearen zain dauden ikasleen plano orokorra (panoramika). Protagonistei enfokaturik amaitzen da plano. Plano orokorra iluntzen doa.	
E10	Eklipsearen animazio-plano. Protagonisten lehen planoak	AINARA: Baina zer da hori? E, ikusi!

	<p>tartekatzen dira. Plano orokorren bat tarteka daiteke. Eklipsea amaitutakoan, Ainararen lehen plano, leihoko argiarekin. Hori baino lehen, ikasleen plano orokor bat muntatu daiteke. Ainararen erreakzioaren plano beltzera itzaltzen da</p>	
E11	<p>Lehen 360 panoramikara pasatu eta harekin mugituko gara, pertsonaien deskribapenarekin. Pertsonaiek leihora begiratzen dute.</p>	<p>NAROA: Neska kartsua da, oso irekia. Musika eta kirola gustatzen zaizkio.</p> <p>ELOI: Mutil lotsati, buruargi eta arretatsua da. Literatura, filosofia eta historia gustatzen zaizkio.</p> <p>ANDONI: Haserrekorra, analitikoa eta lehiakorra da. Kirolak ikaragarri gustatzen zaizkio.</p> <p>AINARA: Oso alaia, sortzailea eta hausnartzailea da. Ekologista da, eta argazkigintzaren zale amorratua.</p> <p>GORANE: Neska txukuna da, apur bat harroa eta azalekoa. Sozializatzea eta ekitaldiak planifikatzea gustatzen zaio.</p>
E12	<p>Layton eszena, neska-mutilak argi misterioitsuari buruz hizketan. Eklipsea amaitu egiten da.</p>	<p>AINARA: Zer da argi bizi hori? Esango nuke eklipsea baino lehen ez dudala ikusi!</p> <p>ELOI: Leioa egurrekin zigilatuta dago, konturatu al zarete? Zer ote dago barruan?</p>

		<p>GORANE: Argazkigintzako gela iluna dirudi.</p> <p>ANDONI: Bai zera! Errebelatze-gela beste eraikinean dago. Liburutegitik gertu dagoela uste dut, baina ez zait batere ezaguna egiten.</p> <p>NAROA: Eklipsea amaitu da eta argia ere desagertu egin da... Hau misterioa!</p> <p>ANDONI: Oraindik ordu-erdi daukagu hurrengo eskolara arte... Joango al gara ikertzera?</p> <p>GORANE: Ados, baina ez gaitezen arazoetan sartu.</p>
E13	Kanpoaldearen 360 panoramika	<p>HELBURUA: Aurkitu argi misteriotsua igortzen duen gela.</p> <p>AINARA: Denbora ematea espero dut.</p> <p>ELOI: Arriskutsua ez izatea espero dut.</p> <p>ANDONI: Goazen.</p>
E14	Ikastetxearen sarreraren panoramika	<p>AINARA: Zer esaten ari da bedela?</p> <p>ZUZENDARIA: Eklipsea gustatuko zitzaizuela espero dut... Nik, behintzat, aspaldian ez dut hain berezirik ikusi!</p> <p>BEDELA: Egundokoa izan da... iluntasunak une batez arima bildu izan baligu bezala. Barkatu, lanera itzuli behar dut!</p>

E15	Ikastetxearen harrera-lekuaren panoramika	<p>GORANE: Mundu guztia kimika-eskolako anabasaz hitz egiten ari da.</p> <p>SARRI: Ez al duzue uste gauza arraroak gertatu direla eklipsean zehar? Bigarren solairutik zetorren zarata bat entzun dut.</p> <p>HAIZEA: Ez zaitezte laborategira joan... Baten batek esperimendu batekin zikin-zikina utzi du dena!</p> <p>KARTELA: Ez da kafetegira joateko unea.</p> <p>KARTELA: Bigarren solairua.</p>
E16	Bigarren solairuaren panoramika	<p>ANDONI: Ondo goaz. Bigarren solairuan dago gela.</p> <p>IKASLEA: Eklipsea laburregia izan da. Ez dut entzunaretora itzuli nahi!</p> <p>IKASLEA: Beldurtuta nago! Liburutegian nengoela, bat-batean dena ilundu egin da, eta kanpoan zarata arraro batzuk entzun ditut!</p>
E17	Entzunaretoaren 360 panoramika	<p>GORANE: Irten gaitezen hemendik; honek ezin aspergarriagoa ematen du.</p> <p>ANDONI: Hemendik ez da.</p> <p>KARTELA: Hemen ez dago gauza handirik.</p>
E18	Liburutegiaren sarreraren panoramika	<p>ELOI: Gertu al gabiltza?</p>

		<p>ANDONI: Eskuinaldean izan behar luke.</p> <p>NAROA: Hobe liburutegian ez sartzea.</p>
E19	Apalategiaren panoramika	<p>GORANE: Hemen ez dago aterik!</p> <p>ANDONI: Uste dut iritsi garela.</p> <p>KARTELA: Horma normal bat besterik ez da.</p> <p>KARTELA: Apalategia. Zer egiten du hemen?</p>
E20	Layton eszena apalategiaren parean, apalategiaren animazioa gelako atea erakutsiz	<p>ELOI: Begiratu apalategi honi: antzinako liburuak dira, eta hautsez beteta daude. Aspaldian ez ditu inork irakurri.</p> <p>AINARA: E! Apalategiaren atzean ate bat dagoela uste dut!</p> <p>NAROA: Bai, ate bat da... Uste dut apalategia mugi dezakegula!</p> <p>GORANE: Nik nahiago dut hemen geratu eta zuek nola mugitzen duzuen ikusi.
 (Apalategia mugitzen dute eta ate bat ikusten da)</p> <p>NAROA: Ederki... Ba hauxe da gela misterioitsua!</p> <p>ELOI: Sinboloa oso ezaguna egiten zait, baina ate hori beldurgarri samarra da!</p> <p>ANDONI: Aizue, ez gara honaino alferrik etorri... Ireki egingo dut atea!</p>

<p>E21</p>	<p>360 panoramika - Gela sekretua. Deskripzio-elementuak. Armairuaren gainean sakatzean, hurrengo eszenara pasatzen da</p>	<p>IZENBURUA: Aurkitu argi misteriotsuaren jatorria.</p> <p>AINARA: Hau guztia beldurgarri samarra da.</p> <p>ELOI: Sinbolo horiek antzinako Mari jainkosari egiten diote erreferentzia.</p> <p>GORANE: Uag! Zenbat denbora daramate hau garbitu gabe?</p> <p>ANDONI: Zergatik ezkutatuko ote zuten gela hau?</p> <p>NAROA: Ene! Antzinako tresna pila bat dago!</p> <p>KARTELA: Sinboloak. Antzinakoak dirudite.</p> <p>KARTELA: Ispilua. Antzinakoa dirudi.</p> <p>KARTELA: Beheko ateak. Itxita daude.</p> <p>KARTELA: Kirikoketa. Musika-tresna. Hau bezalako bi mazo erabiltzen ziren lurtean ohol bat kolpatzeko.</p> <p>KARTELA: Trebera. Eltzea txingarretan jartzeko burdinazko euskarri baxua.</p> <p>KARTELA: Antzinako erlojua. Ez dabil.</p> <p>KARTELA: Argizaiola. Argizari-bildumena biltzen den ohol landua. Etxearen eta hildakoen arteko konexioaren sinboloa da.</p> <p>KARTELA: Laia. Lurra lantzeko eta iraultzeko lanabesa, altzairuzko bi hortz eta zurezko gider batez osatua.</p>
<p>E22</p>	<p>Neska-mutilek Izarra hartzen dute.</p>	<p>AINARA: Zer da hori?</p>

		<p>ELOI: Zur landuzko izar bat da, eta errubi bat dauka erdian.</p> <p>NAROA: Baina zergatik igortzen du halako argia? Hartu egingo dut!</p>
<p>E23</p>	<p>Alde ilunera pasatzen dira</p> <p>Itzuli egiten dira, gertatutakoaz hitz egin dute, eta azken planoren bat jarriko dugu atala amaitzeko.</p>	<p>AINARA: Baina zer gertatu da? Non gaude? Gaua itzuli da, ala?</p> <p>ELOI: Lehengo gela berean gaude, baina desberdina dirudi... beste dimentsio batean bageunde bezala!</p> <p>GORANE: Nahiko dimentsio nazkagarri eta ilunean, egia esan!</p> <p>ANDONI: E, begiratu kanpora!</p> <p>NAROA: Ikusi al dituzue bere begiak? Ikastetxe berean gaude, baina ezagutzen dugun errealitatearen bertsio ilun bat dirudi.</p> <p>ELOI: Nik ez dakit izar hau nondik atera den, baina esango nuke benetako mundua geure atzealde ilun batekin lotzen duela.</p> <p>[Benetako mundura itzultzen dira]</p> <p>NAROA: Itzuli gara!</p> <p>ANDONI: Ez dut oso ondo ulertzen puntadun katxarro horrek nola funtzionatzen duen, baina eraman egingo dugu. Baliagarria gerta dakigukeela iruditzen zait.</p> <p>ELOI: Ados nago. Baina, nola funtzionatzen duen jakin arte, kontuz ibili beharko dugu.</p> <p>AINARA: Niri oraintxe interesatzen zaidan gauza bakarra eskolara berandu ez iristea da. Goazen!</p>